

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko urtarrilaren 31 / 527. zenbakia



SANTA MARINAKO ZUBIA TXUKUNTZEN

HILABETE ETA ERDI GELDI EGON ONDOREN,
ASTELEHENEAN EKIN ZIETEN LANEI

PAULO ELKORO: ISOLAMENDUAN MUNICHEKO KARTZELAN/5 • ELKARRIZKETA: AGUSTIN ARANTZABAL/10

SAN MARTIN ESKOLAN ATEAK ZABALIK

Otsailaren 1ean 16:30etik 19:30era

EGITARAUA

Erakusketak

Jolasak

Antzerkia

Tailerrak

Informatika

Irrati saioa

Patxin Potxin

pailazoak



Auzoetako eskolak ezagutzeko aukera telefono hauetara deituz:

Zabalotegi

943 76 08 17

Osintxu

943 76 45 43

Martoko

943 76 08 63



MATRIKULAZIO EPEA OTSAILAREN 3TIK 14RA



SAN MARTIN ESKOLA

Boni Laskurain 25 Tel: 943 76 21 47

www.goieskola.net/SanMartinAgirreEskola

IPINTZA INSTITUTUA

Boni Laskurain 19 Tel: 943 76 31 42

www.goieskola.net/ipintzabhi

IPINTZA INSTITUAN BILERA INFORMATIBOA

DBHko ikasleei (12-16 urte) eta gurasoei zuzenduta

Otsailaren 5ean 18:30ean

Bilera amaitu ondoren ikastetxea bisitatzera gonbidatuta zaudete



SAN MARTIN

IPINTZA

M. ALTUNA

BERGARAKO IKASTETXE PUBLIKOAK

ATREBENTZIAEZPADA/ Etxeko lanen arduria banatzen dozue bikotian?



MARI PAZ GARCÍA
72 urte

Ez, nere gizona lehengo ohi-ttoretakua dalako. Bestalde, nahitza be ezingo leuke, eskuetako gaitza daukalako. Baiña semietan ikusten dot euren etxien egitten dabela, eta halaxe bihar dau.



JOSU LAZPIUR
67 urte

Ez, andriak egitten dau dana. Neuk ume zain baka-rrik egitten dot. Etxeko gauzak andriak egitten dittu; izan be, ez jat parian suertau, eta, suertatzen bada, igoal egingo dogu.



PEGERTO BLANCO
51 urte

Bai, banatzen dittugu. Gauza batzuk beste batzuk baiña gehixago egitten dittut. Betibe, lan ordutegixaren arabera, ba, etxeko lan batzuk egitten dittut edo beste batzuk.



AMAIA BEITIA
30 urte

Guraseun etxian bizi naiz, eta gauza haundirik ez, baiña zerbait bai. Eta gurasuen kasuan, ba, amak aittak baiña gauza gehixago egitten dittu, baiña aittak be pixka bat laguntzen dau.



MIKEL ELKORRO
37 urte

Bueno, gutxi. Gehixago egin bihar dotela esaten dosta. Nik badakit gehixago egin biharko neukela, baiña kostau egitten jat. Baiña pixka bat egitten dot; gero eta gehixago.



MARTA BEDOYA
40 urte

Bikotekiderik ez daukat eta harekin ezin banatu lanak, baiña semiak bai, eta harek asko laguntzen doste. Nere ustez, txikittatik erakutsi bihar jakie, nagusitzen dienan be egin daixien.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ERREPIDEAK KONPONTZEKO BEHARRA San Juan auzoan dabilen ibilgailu kopuru handia ikusita, gehiago nola zain-tzen ez duten diosku irakurle batek. Berak egunero erabiltzen du erre-pide hori, eta zuloz josita dagoela kexatu da. Ibilgailuek, gaine-ra, zuloan ez sartzeko, kontrako erreira sartzen direla ere esan du eta egunen batean istripuren bat gertatuko dela. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /7

Ana Mari Rekalde moja

Ama Maria Jesusi omenaldia egin zioten domekan. Horren harira, elkarrizketa egin diogu.

KIROLAK /10

Kadete saski-baloi taldeak

Kadete mailako bi saskibaloi taldeek partiduak izango dituzte zapatu eguerdian Labegaraian.

KULTURA /12

Organo kontzertua

Jean Paul Imbert organo jotzaileak emanaldia egingo du bihar, zapa-tuan, 20:00etan, San Pedron.

ASTEKODATUA

1.710

ARANTZABALEK LIGAN JOKATUTAKO MINUTUAK

Rekarterekin batera, ligako lehen itzulian partidu guztiak osorik jokatu dituen Realeko jokalaririk bakarra da Arantzabal kapitaina. Domekan, Athleticen aurka jokatu du Realak, Bilbon.

BESTEKEKESANA

Argentinako Experimenta 5 Teatro jaialdiko esperientzia oso ona izan da, harrera ezin hobea egin zigiten.

Oso potentea da parte-hartzai-leendako, emanaldiez gain ekitaldi asko dagoelako, esaterako, hitzaldiak eta ikastaroak. Topaketa haundia da; 10:00etan hasten zen egunero eta 24:00 arte ez zen bukatzen.
ITXASO AZKARATE / Taun-Taun taldeko kidea 'El Diario Vasco'/03-01-22

Sustatuzale guztiendako da Argiak eman digun Sareko Argia saria.

Eguneroko al-bistegi elektronikoko honen irakurleak eta parte hartzen dutenak izan dira sarituak. Beraz, zorionak, egunero jarraitzen digute-nei.
IBAN ARANTZABAL / 'Sustatu.com'-eko editorea

BERAIEK DINOE/ Edurne Azuara



Einstein berria

Gaur goizean aldizkari bat irakurtzen aritu naiz eta berri interesgarri (edo harrigarria, behintzat) batekin aurkitu naiz. Titularrak honela zioen: "Carol Rothwell zientifikoak Zoriontasunaren Formula aurkitu du", eta jarraian ondorengo formula-rekin aurkitzen naiz: Zoriontasuna = $P + (5+E) + (3+H)$ Kontxo! Berri hau ziurtatzeko edo informazio gehiago aurkitzeko asmoarekin Interneten sartu naiz eta han, zientziari buruzko portal baten (zientzia!) erreportaje luze batekin aurkitu naiz eta baita formula nola aplikatu ere; P-k ezaugarri pertsonalak biltzen ditu, E-k osasuna, ekonomia eta lagunartea eta H-k autoestima, etorkizun planak eta humorea. P, E eta H-ren balioa jakiteko zientifiko honek 4 galdera proposatzen ditu test moduan. Erantzun bakoitzari letik 10erako balioa ematen badiogure zoriontasun maila zein den jakingo dugu.

Egia esan, formula honek ez dit batere graziarik egin, matematikak eta ni oso gaizki eraman izan gara beti eta bestalde gaur, astelehena, kristoren ajearekin nago eta seguru aski orain ez naiz test honi eta galdera sakon hauei zentzu onez erantzuteko gai.

"Einstein berri honen formulak eragin positiboa izan duela jakitea ez litzateke berri txarra izango"

Beraz, biharko utziko dut. Baina seguru aski bihar ere itsututa egongo naiz egun guztia zeren gaur *Operación Triunfo* guztia irentsiko dut pisukideekin (aitortzen dut!) eta bihar goizeko seietan jaiki behar naiz, eta...zer arrai! Ez dut uste formula hau aplikatzeko kasuan, erantzunak asko argituko nauenik. Ala ez al naiz nik ditudan (eta ez ditudan, noski) gauzak baloratzeko gai?

Edozein modutan ere, antidepressiboen industria etengabe gora eta gora doan gizarte honetan, Einstein berri honen formulak eragin positiboa izan duela jakitea ez litzateke berri batere txarra izango.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Begarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 11
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05

ZAPATUA, 1
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63

DOMEKA, 2
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63

ASTELEHENA, 3
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15

MARTITZENA, 4
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74

EGUAZTENA, 5
PUY, Barrenkalea 25. 943 76 16 87

EGUENA, 6
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako Udaltzaingoa. 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa. 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK
Taxiak. 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea. 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuen etxea, Bergara. 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK. 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro Domekak: 09:30, 12:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:00.	Labegaraieta Domekak: 11:00. San Lorentzo Zapatuak: 20:00. Angiozar Domekak: 11:30. Moja Zaharrak Lanegunak: 09:00. Zapatuak: 11:00. Mizpirualde Lanegunak: 11:45. Zapatuak: 17:30.
Sierbak Lanegunak: 19:15. Zapatuak: 19:00. Domekak: 11:30, 13:00.	Antzuola Domekak: 09:00, 11:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
Osintxu Domekak: 12:30. Zapatuak: 19:00.	Uzarraga Domekak: 10:00. Elgeta Lanegunak: 09:00. Zapatuak: 19:30. Domekak: 12:00.
Elosu Domekak: 10:30.	
Ubera Domekak: 10:30.	
San Juan Domekak: 11:00.	
Elorregi Domekak: 10:30.	

URTE-MEZAK

Santa Marina (Sierbetan)
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.

San Pedro
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

BEDELKARREKO ZOZKETAKO ZENBAKI SARITUAK

Bedelkarrek joan den urtarrilaren 8an egindako zozketan honako zenbaki hauek izan dira sarituak: 2.250, 8.967, 23.741, 59.381 eta 104.617. Txartelon jabeek 600 euroko erosketa bono bana eskuratuko dute.

BEART-EKOAK MADRILERA OTSAILAREN 14AN

Beart artisten elkarteak otsailaren 14tik 16ra Madrilgo ARCO feria ikustera joateko irteera antolatu du. Argibideak, 635 71 32 69 telefonoan.

HELDUEN HEZIKETA ESKOLAN MATRIKULA ZABALIK

Helduen Heziketa Eskolan (HHI-EPA) matrikula epea zabalik egongo da otsailaren 3tik 7ra bitartean. Argibide gehiago, Irizar jauregiko bigarren solairuan (Barrenkalea 33) edo 943 76 44 52 telefonoan.

INFORMATIKA IKASTAROAK KZGUNEAN

Irizar jauregiko lehenengo solairuan dagoen KZGuneak herritar guztiendako Informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Besteak beste, Interneten nabigatzeko eta prestakuntzako ikastaroak antolatu dituzte. Argibideak, 943 76 73 24 telefono zenbakian.

ODOL ATERATZEA OTSAILAREN 12AN

Hurrengo odol ateratzea otsailaren 12an egingo dute. Ohikoa den moduan, Seminarioko lokalean egingo dute, 18:30ean hasita.

BAINUETXE PROGRAMA

Immersoren Bainuetxe Programaren bigarren txandan parte hartu nahi duten erretiratuek Ongizate Zerbitzuan eman dezakete izena. Informazio zabalagoa, 943 77 91 65 telefonoan.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zuradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta / Olabarretik irteerak
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

Agustin Arantzabal, etorkizuneko Realean

Sanse taldean jokatzeko zihar- duen Agustin Arantzabal elkar- rrizketatu genuen 1993ko otsai- lean. Zubietako entrenatzaileak eta Realeko jokalaria bat zeto- zen Agustinen etorkizun bikai- na iragartzerakoan. Eta hala baieztatu du bergararrak. Rea- leko kapitaina da gaur egun.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Eraxxi”



1. Esnea jeitsi behiak errapera.
— *Beixak, jasteillia ezezauna dalako ero, batzutan esnia jaso eitten dau ta ezin izaten da ezer eñ aiketa berriz eraxxi arte.*
2. Jetzi, eraxsi, bildu.
— *Aittak beixak erasten diardu.*

ASTEKOFILMAK


‘EL SEÑOR DE LOS ANILLOS: LAS DOS TORRES’

ZUZENDARIA: PETER JACKSON. **AKTORE- AK:** ELIJAH WOOD, VIGGO MORTENSEN.

HARIA. Eratzunaren komunita- tea hautsi egin da. *Frodo*-k eta *Sam*-ek *Mordor*-era bakarrik joa- tea erabaki dute...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan eta 22:30ean; domekan, 16:45ean eta 20:00etan; eta astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



HAUGIROA!

MINIMOA 0 °C
Zapatua, 25

MAXIMOA 12 °C
Eguena, 23

ASTEKO EURIA (l/m²) 70,4 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 22	12 °C	3 °C	16,8 l/m²
Eguena, 23	12 °C	6 °C	2,9 l/m²
Egubakoitza, 24	11 °C	3 °C	— l/m²
Zapatua, 25	12 °C	0 °C	3,2 l/m²
Domeka, 26	12 °C	1 °C	14,1 l/m²
Astelehena, 27	12 °C	9 °C	2,3 l/m²
Martitzena, 28	11 °C	10 °C	31,1 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

‘HISTORIAS MINIMAS’

ZUZENDARIA: CARLOS SORIN. **AKTORE- AK:** JAVIER LOMBARDO, ANTONIO BENEDICTIS.

HARIA. Agure zahar batek seme- arengandik ihes egingo du, gabi- dutako txakurrarekin topo egi- teko. Beste bi pertsonaia berea- ere San Julian herrira joango- dira, euren desioak betetzeko itxaropenarekin.

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean, hila- ren 6an, 20:00etan. Zinekluba.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

Ur~bide
I T U R G I N T Z A

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617

JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

PRESOAK/ Familiak ezin izan du oraindik harekin egon, baina abokatuaren bidez jaso dituzten berrien arabera, ondo dago

Paulo Elkoro Munichen espetxeratu zuten egubakoitzean, eta isolatuta dago

MONIKA BELASTEGI

Joan den asteko martitzenean atxilotu zuten, Nuremberg-en (Alemania), eta egubakoitzean, Municheko espetxera eraman zuten. Orduz gero isolamenduan dago, eta familiak ezin izan du harekin egon. Astean, hainbat mobilizazio egin dituzte atxiloketa gaitzesteko.

Joan den asteko martitzen iluntzean atxilotu zuten Paulo Elkoro 29 urteko bergararra. Alemaniako Polizia Federalak atxilotu zuen, Nuremberg-en. Etxetik irten berria zela atxilotu zuten. Atxilotzeko unean agiri faltuak zeramatzala azaldu zuten polizia iturriek, eta armarik ez. Atxilotu ondoren, Elkororen etxea ere miatu zuen poliziak, eta ordenagailu bat eta inpresora bat eraman zituzten. Horrez gain, haren lagun bat ere atxilotu zuten eta bost orduz izan zuten polizia etxean. Elkoro, berriz, bi egunez izan zuten polizia etxean, atxilotua izan zela inork jakin barik.

Bost urte zeramatzen Elkorok herritik kanpo, 1998ko apirilaren 19a ezker; hain justu ere, Guardia Zibilak Bergaran, Antzuolan eta Gasteizen egindako polizia operazioetik. Sarekada hartan hamaika lagun atxilotu zituzten, ustez Araba komando-kide izateagatik.

Hurrengo urtean, 1999ko martxoan, Teresa Palacios Auzitegi Nazionalako epaileak auzipetu egin zuen Paulo Elkoro eta bilatze eta atxilotze agindua eman zuen. Hori horrela eta Auzitegi Nazionalako iturrien arabera, estradizioa eskatu dute Araba komandoarekin kolaboratzeagatik. Horrez gain, 1997an Arakako kuartel militarren aurka egin-



EDU MENDIBIL

Hainbat mobilizazio egin dituzte, eguenetik egubakoitzera bitartean, Paulo Elkororen askatasuna eskatzeko.

dako atentatuan lagundu izana ere leporatu diote. Bestalde, Espainiako Poliziako iturriek Europako hainbat herritako enbaxadatar eta zenbait bidaia agentziatara ETaren izenean gutunak bidaltzearekin ere lotu dute.

FAMILIAK, BERRI GÜTXI

Paulo Elkororen aita Jose Luis Elkorok esan duenez, semearen gaineko "berri gutxi" dute, "abokatuak esandakoak bakarrik. Telefonoz ere ezin izan dugu harekin berba egin". Jose Luis Elko-



ARTXIBOA

Paulo Elkoro.

rok gehitu duenez, abokatu birritan egon da Paulorekin eta "ondo dagoela esan digu, animotsu ikusi duela".

Jose Luisek gehitu duenez, semea isolatuta daukate espetxean eta egunero "ordubete uzten diote patiora irteteko. Bestalde, oraindik ez dakigu noiz emango diguten lehen bisita, baina jakin badakigu hamabostean behineko bisitak izango direla, ordu erdi-koak, eta aldi berean hiru lagunek egoteko aukera izango dugu la bisita bakoitzeko".

HAINBAT MOBILIZAZIO EGIN DITUZTE ATXILOTZEA GAITZESTEKO

Atxilotu zutela jakin zenetik, hainbat mobilizazio egin dituzte Paulo Elkororen atxilotzea salatzeko: besteak beste, egunean, hilaren 23an, manifestazioa gin zuten hainbat lagunek; egubakoitzean, hilaren 24an, ikastetxeetan greba egin zuten, eta eguerdian eta iluntzean manifestazioak egin zituzten. Zapatu iluntzean ere hainbat herritarrek manifestazioa egin zuten herriko kaleetan barrena.

Astean berriz ekin diete Santa Marinako zubia garbitzeko lanei

MONIKA BELASTEGI

Hilabete eta erdiz geldirik egon ondoren, astelehenean ekin zieten berriz Santa Marinako zubia garbitu eta egokitzeko lanei. Zarpeatu egingo dute, Santa Marinako elizaren hormen ahalik eta itxura handiena eman nahirik. Bestalde, landaretza guztia kenduko diote.

Zarpeatuari dagokionez, zubiaren barruko eta kanpoko aldetik egingo dute, arkuetan izan ezik. Horrez gain, zubiko hormetan dauden harri solteak lotu egingo

dituzte, baita dauden hutsuneak bete ere.

Bestalde, zubiak erantsita dituen landareak, lizunak, algak eta halakoak kendu egingo dituzte. Helburua landaretza behin betiko kentzea da, eta horretarako egokiak diren hainbat gai kimiko erabiliko dituzte.

LANAK GELDI HILABETE ETA ERDI

Zubia garbitzeko lanak iazko azaroan hasi ziren, baina azkeneko hilabete eta erdian geldirik egon dira. Zubia Santa Marina elizaren ondoan dagoenez, txukuntzeko orduan erabili beharreko

irizpideak izan ziren lanak gertatzeko arrazoia. Juan Jose Arrieta Gobernazio buruak azaldu duenez, Udaleko teknikarien artean hiru irizpide aztertu zituzten eta bat aukeratu arte egon dira geldirik lanak. Aukera bat zen zubi osoa zarpeatzea; bigarrena, harria bistan lagatzea; eta hirugarrena, orain dagoen moduan uztea. Azkenik, eta elizarekin ahalik eta antz handiena izan dezan, zarpeatzea erabaki dute.

Azken hiru urteotan Udalak garbitzen duen hirugarren zubia da: 2001ean, Osintukoa garbitu zuten eta 2002an, Ozaetakoa.



INAKI ITURBE

Zubia elizen ondoan dagoenez, elizaren hormen itxura handien eman nahi diote.



MONIKA BELASTEGI

Besteak beste, San Paulo ermitara doan pasealekua konpontzeko erabakia hartu du Udalak.

AUZOAK/ Ermitako pasealekua konponduko dute, horma bota eta hesi berria jarri

Uberako San Pablo elizaren ingurua egokituko dute

MONIKA BELASTEGI

Uberako San Paulo elizaren ingurua egokitzea erabakia du Bergarako Udalak. Elizara doan pasealekua konponduko dute eta eliza inguratzen duen horma bota ondoren hesi berria jarriko dute. Lan horien guztien aurrekontua 16.200 euro ingurukoa izango da.

Ubera auzoko San Paulo elizaren ingurua egokitzeko proiektua eta lanak esleitzeko baldintzak martitzenean onartu zituen udalbatzak, EAJ-EA alderdiaren, Bergarako Sozialista Abertzaleak taldearen eta PSE-EE alderdiaren aldeko botoekin.

Lanen helburua da, batetik, San Paulo elizako pasealekua egokitzea; bestetik, elizaren aurreko aldean dagoen horma botatzea; eta, azkenik, hesi berria jartzea. Lanak prozedura negoziatuaren bidez esleitu dituzte eta aurrekontua 16.171 eurokoa izango da.

BASERRIETAKO BIDEAK KONPONTZEKO HAINBAT IRIZPIDE

Elosu auzoan dagoen Kantera baserriko bidea konpontzeko gaia ere aztertu zuten osoko bilkuran. Hormigoi horniketa Udalak egin behar duen edo ez bozkatu zuten Bergarako udalbatzak. EAJ-EA eta PSE-EE alderdiek aldeko bota eman zuten. Bergarako Sozialista Abertzaleak taldeak, berriz,

aurkako botoa eman zuten. Talde horretako ordezkariak ez daude ados baserri bideen konponketarako Udalak jarraitzen dituen irizpideekin. Azaldu zuten, Kantera baserrian ez da inor bizi, eta gogoratu zuten udalerrian beste hainbat auzo eta baserri daudela, non jendea bizi den eta bidea egoera txarrean dutenak.

Horrez gainera, udaletxeko osoko bilkuren aretoan megafonia eta grabaketa sistema berriak jartzeko gaia ere landu zuten Bergarako udalbatzak. Megafonia sistema oso egoera kaskarrean dago gaur egun, eta alderdi guztiek bat egin zuten megafonia eta grabaketa sistema berriak jartzeko asmoarekin.

Osoko bilkurak sahararren askatasunaren alde egin du

MONIKA BELASTEGI

Herri sahararraren aldeko mozioa onartu zuen udalbatzak martitzenean izandako osoko bilkuran. Alderdi guztiek bat egin zuten sahararren askatasunaren alde egiten ari diren bidezko borrokarekin.

Herri sahararraren aldeko mozioa onartu zuten EAJ-EAk, Sozialista Abertzaleek eta PSE-EE alderdiak martitzenean izandako osoko bilkuran. Horrela, Saharako Herria bere askatasunaren alde eta bere herrirako eta Magreb-eko eskualde osorako bakearen bila egiten ari den bidezko borrokaren aldekoa dela adierazi zuten Udalak. Horrekin batera, sahararren autodeterminazio-erreferendum bidez euren etorkizuna libreki erabakitzeke duten eskubidea baieztatu zuten. Horren ildotik, Nazio Batuetako Idazkari Nagusi den Kofi Annan-

i eta Ekialdeko Saharako Mandatari James Baker-i eskatu die sahararren autodeterminazioarako duten eskubidea gauzatzeko premiazko neurriak hartzea. Horrez gain, Europako Batasuneko erakundeei Bake Planaren garapenean inplikatzeko eskatu die eta Marokok azken 27 urteetan Ekialdeko Saharako lurraldean duen okupazio militar ilegala ere salatu du Udalak.

PRESO POLITIKOAK ASKATZEKO EXIJENTZIA MAROKORI

Preso politikoen kasuan, guztiak aska ditzan exijitu nahi izan die Udalak Marokori mozioarekin, eta desagertutako 500 lagunetako gorakoak non dauden argitzea.

Horrez guztiaz gain, Udalak mozio horren bidez eskatu die NBEari, Europako gobernuari eta bereziki, Espainiako gobernuari errefuxiatu sahararren jasaten ari diren elikagaien krisia arintzeko fondo bereziak askatzea.

Garzónnek azken 25 urteotako aktak eskatu dizkio Udalari

MONIKA BELASTEGI

Iaz, urriaren 16an kaleratutako ebazpen baten "garbiketa etnikoa" egitea egotzi zion Garzón epaileak Batasunari. Esandako hori frogatzeko, HBk, EHk eta Batasunak azken 25 urteotan egindako jardueren gaineko informazioa eskatzen ari da epailea Euskal Autonomia Erkidegoko udal guztiei.

Joan den astean jaso zuten Garzónen eskabide hori Bergarako Udalean ere. Hori horrela, otsailaren 3rako Udaleko aktak igorri behar dizkiote eta horretan ari dira Udalean.

Martitzeneko osoko bilkuran gaia mahai gaineratu zuten Sozialista Abertzaleek eta haien iritziz "Garzón epailea ez da inor horrelako agindua emateko Udala bezalako erakunde bati". Bestetik, ez zaie egoki iruditzen Udaleko lagunak euren ohiko jardunak utzi beharra informazio hori batzeko eta horren ildotik, eskatu zuten Udalak gutun bat bidaltzea Garzóni, esateko eskatutako informazioa publikoa dela eta eskuragarri duela nahi duenean.

Alkateak adierazi zuen osoko bilkuretako aktak bakarrik bidaliko dituztela, euskaraz, eta Idazkaritza ari dela lan horretan.



Josu Cifuentesen aldeko kanpaina

Josu Cifuentesek 12 urte ditu eta tratamenduan laguntzeko diru bilketa hasi dute. Leuzemia du eta Gasteizen dihardu tratamendua jasotzen, baina laster Bartzelonara eraman behar dute, hezur-muina transplantatzeko. Familiari laguntzeko asmoz, saskia atara dute Josu Cifuentesen izenean. Txartelak herriko tabernetan daude salgai. Bi kontu zenbaki ere ireki dituzte: Euskadiko Kutxan (3035 0009 16 0090701568) eta Caja Rural de Navarran (3008 0169 55 0100016282).

LABUR

Astelehenean jaso eta batuko dute errefuxiatu sahararrendako janaria

Astelehenean, otsailak 3, hainbat herritarrek sahararrei laguntzeko egunotan egin den janari bilketa kanpainari amaiera eman go diote. Hala, janaria batu eta Mariaren Lagundia pareko erakundeekin kuxetan gordetzeko lanari ekingo diote. Horren guztiaz, errefuxiatu sahararren kanpamentuetara bidaliko dute janaria.

AHTaren aurka Tolosan egingo den manifestaziorako autobusak antolatu dituzte

Bihar, zapatua, AHT Gelditu, inposaketarik ez lelopean Tolosan egingo den manifestaziorako autobusak antolatu dituzte herritarrek. Izena Pol-Polen eta Arrano tabernetan eta gaztetxean eman daiteke.

Manifestazioa 18:00etan abiatuko da, Triangelutik eta autobusa berriz, 16:00etan aterako da Angiozartik eta 14:30ean, autobus geltokitik.

ELKARRIZKETA

ANA MARI REKALDE /MOJA ETA ORGANO JOTZAILEA

“Ibili ezinda geratzen naizenera arte jarraituko dut organoa jotzen”

MONIKA BELASTEGI

Ama Maria Jesus omendu nahi izan dute San Pedroko eta Santa Marinako koroek, hark organo jotzaile eman dituen urteengatik. Gaixotu eta ezin izan zuen omenaldira joan. Hala ere, oso pozik agertu da detailearekin.

Domekan omenaldia egin behar zizuten San Pedron, eta ezin izan zinen joan.

Ilusio handia egin zidan jakin nuenean omenaldi txiki bat egin behar zidatela. Domekan izan behar zen, San Pedron, baina ezin izan nintzen joan. Gaixotu egin nintzen, jandako zerbaitek-edo kalte egin zidan. Goragalearekin egon nintzen. Pena handia eman zidan.

San Pedron eta Santa Marinan organoa jotzen egindako lana eskertu nahi izan dizute. Noiz hasi zinen, ba, organoa jotzen?

Hamazortzi urterekin, moja egin nintzenean. Garai hartan, oso zorrotza zen nire ordena, eta ia-ia kalera begiratu ere ezin genuen egin, baina garai hartan, Santa Marinako organo jotzailea gaixotu egin zen, eta halaxe hasi nintzen, ordu bateko mezan. Horren ondoren, San Pedron hasi nintzen. On Josuk, Mugika gozotegikoak, jotzen zuen organoa San Pedron, baina hura ere gaixotu egin zen. Bietan jotzen hasi nintzen, orduan. Eta bi mezak ordu batean izaten zirenez, batean jo eta korrika joaten nintzen bestera.

Horrenbeste urtean, izango duzu anekdotarik.

Gogoratzen dut On Jose Maria Eguren parroko zegoela San Pedron, meza euskaraz egiten zuenean, nik euskara jakin ez eta hasieran ezin izaten niola ondo jarraitu. Hori dela eta, batzuetan isilunea egiten bazuen, ttua tratatzeko edo, nik esan beharrekoa bukatu zuela pentsatu eta organoarekin *Amen* jotzen nuen. Baina azkenerako hainbeste aldiz entzunda, ikasi nuen noiz jo eta noiz ez.

Oraindik ere jarraitzen duzu organoa jotzen.

Bai, eta ibili ezinda geratzen naizenera arte hala segituko dut. **Hainbat organo jo izan dituzu. Zein gustatzen zaizu gehien?**

San Pedrokoa. Batek esan zidan behin, gainera, Gipuzkoan dagoen bigarren onena dela. Niri gehien gustatzen zait, oso doinu ederra duelako, eta erregistro ugari. Hemen, eskolako elizan duguna politena da, altzari ederrera horrek du, baina doinua San Pedrokoa.



MONIKA BELASTEGI

“18 urte nituela hasi nintzen organoa jotzen, Santa Marinan, eta gero, San Pedron”

Udalak antolatzen dituen organo emanaldietara joaten zara?

Aurrekoan izan nintzen, Meinhold alemaniarrek emandako kontzertuan.

Eta zuk lagatzen duzunerako erreleburik badago?

Bada, ez dakit zer gertatuko den. Hainbat tokitan ez dago organoa nork jo. Organo jotzaile gutxi dago. Gaur egun, jendeak bere lana du, eta beste arduratuz, eta hiletetan edo asteburuetako elizkizunetan jotzeko denbora behar da. Nik, esaterako, moja naizenez, beti izan dut denbora batean eta bestean organoa jotzeko.

Bestalde, pazientziarik ere ez dago gaur egun. Organo jotzaile

San Pedrokoa du doinurik politena, baina gure komentuko organoa da politena”

izateko pianoa ondo menderatzea komeni da, eta horri orduak eskaini behar zaizkio.

Bilbotarra zara jaiotzez, baina bizitza ia osoa Bergaran eman duzu.

Bai, 12 urte nituela etorri nintzen Mariaren Lagundira ikastera. 15 urterekin nobizia nintzen eta 18rekin, moja. Eta orduetik hona hemen nago. Bilbokoa baino gehiago, Bergarako naizela esango nuke.

Eta bihar (urtarrilak 28) zure urtebetetzea da. Zelan ospatuko duzu?

Ez dut ezer berezirik egingo. Lehenago, ahizpa bat etortzen zen, eta moja guztiendako pastelak ekartzen zizkigun, baina gaur egun ez da etortzen.

Bautista Barandallaren aldeko elkarretaratzea gaur

MONIKA BELASTEGI

Askatasunak egubakoitzero San Martin plazan deitzen duen elkarretaratzea Bautista Barandalla presoari eskainiko diote gaur. Haren osasun egoera larria dela eta aske utz dezaten eskatzea da helburua.

Bautista Barandalla preso nafarraren aldeko elkarretaratzea egingo dute gaur, egubakoitza, San Martin plazan. Elkarretaratzea 19:30etik 20:00etara bitartean izango da, eta Barandalla aska dezaten eskatuko dute ekimen horrekin. Barandalla 1990eko irailean atxilotu zuten eta 78 urteko kartzela zigorra ezarri zioten. Orduetik hona hainbat espetxetan egon da, eta gaur egun, Iruñeko kartzelan dago, 2002ko abuztua ezker, hain justu ere.

OSASUN EGOERA LARRIAN

Orain dela hiru urte, ultzera peptikoa diagnostikatu zioten, eta ez duenez zaintza egokirik izan, haren egoerak nabarmen egin du

txarrera; horren ondorioz, hainbat aldiz erietxera eraman behar izan dute.

Hori horrela, iazko maiatzean, Barandallaren baldintzapeko askatasuna eskatu zuten, Kode Penalaren 92. artikuluari eutsiz, gaixotasun larri eta kronikoa duelako; baita Iruñeko espetxera aldatzea ere, Nafarroako ospitaleko adituek trata dezaten.

GOSE GREBA ARRASATEN

Elkarretaratzeaz gain, Barandallaren aldeko gose greba ere deitu dute. Deialdia Debagoien osorako da eta Arrasateko Udalean egingo dute. Gaur, egubakoitza, hasiko da, 20:30ean, eta domekan bukatuko da, 19:00etan. Amaitu ondoren, Barandallaren askatasuna eskatzeko manifestazioa egingo da.

Horrez guztiaz gainera, zapatuan, haren egoeraren gaineko hitzaldia egingo dute Arrasateko Udalean, 18:30ean. Barandallaren senitartekoei, haren sendagileak eta plataformako ordezkariak hitz egingo dute ekitaldian.

Gaur hasi eta eguaztena bitartean, jaiak San Blasen

MONIKA BELASTEGI

Jaiak ospatuko dituzte gaurtik eguaztena bitartean San Blas auzoan. Ekitaldi ugari izango dira, gainera: musika, jolasak, dantza saioa eta, zelan ez, opil bedeinkatzea astelehenean, San Blas egunean.

Gaur, egubakoitza, 20:00etan, hasiko dira jaiak San Blas auzoan, etxafuego jaurtiketarekin. 20:30ean, afaria egongo da eta, ondoren, erromeria Haritz eta Enaitz trikitilariekin.

Zapatuan, otsailaren 1ean, Mus Txapelketa jokatu dute auzokoko elkartean, 16:00etan; XV. San Blas Saria, hain justu. Izenematea 15:30ean hasiko da eta bikote bakoitzak 12 euro ordaindu beharko ditu. Domekan, San Blas Txiki eguna, 10:45ean, etxa-

fuegoak jaurtiko dituzte, eta horren ondoren, meza egongo da. Mezaren ostean, salda banatuko dute auzoko elkartean. 11:30ean, Aranzadi Ikastola eta Moises Azpiazu dantza taldeek emanaldia egingo dute, eta horren ondoren, herri kirolak egongo dira. Herri kirolen ondoren, umeendako kukainak egongo dira, trikitilariak alaituta.


Astelehenean, San Blas eguna, 11:00etan, meza egongo da, eta opilak bedeinkatuko dituzte. Horren ondoren, auzoko elkartean salda eta txorizoa banatuko dituzte. Bestalde, ermita egun osoan egongo da zabalik, hara hurreratu nahi duenarendako.

Azkenik, martitzenean, Santa Ageda eguna, aspaldiko usadioari jarraituz San Blas ermitako ermandadeko kideek bilkura egingo dute, 19:00etan.

LABUR

Langabeendako heziketa okupazionalako ikastaroak antolatu ditu Enplegu Zerbitzuak

Bi ikastaro antolatu ditu: Argiketari Industrialak eta Makina-Erremintako Operadorea. Argiketari Industrialaren kasuan, 339 orduko ikastaroa da. Martxoaren 3an hasiko da eta uztailearen 10ean bukatuko da. Eskolak Miguel Altuna Institutuan izango dira, astelehenean egubakoitzera, 15:00etatik 19:00etara. Makina-Erremintako Operadoreari dagokionez, 309 orduko ikastaroa da. Maiatzaren 5ean hasiko da eta irailaren 26an bukatuko da. Eskolak Miguel Altuna Institutuan izango dira, astelehenean egubakoitzera, 15:00etatik 19:00etara. Izenematea eta informazio zabalagoa, Udaleko Enplegu Zerbitzuan edo 943 77 91 24 telefonon.



ENEKO POU IKASLEEKIN

Ipintza Institutuko Kultura Astearen barruan, Eneko Pou mendizale gasteiztarak *Muturreko eskia Pirinioetan* izenburuko diapositiba emanaldia egin zuen martitzenean. Pouk Monte Perdido edo Midi Dusso eskiekin jaitsi zitueneko irudiak erakutsi zizkien ikasleei. Eneko eta Iker Pou anaiak horrelako jaitsieretan Estatuko eskiatzaile onenenetakoa ei dira. Enekok adierazi zuenez, ez du ezagutzen Midi Dusso eskiatzen jaitsi duen beste inor. Ikasleek arreta handiz jarraitu zuten emanaldia, baita Enekok emandako azalpenak ere. Martxotik aurrera anaiarekin batera eskalatzen ibiliko dela adierazi zuen Enekok.



GIRO BIKAINA UBERAKO JAIETAN

Aurreko asteburuan, giro bikaina egon zen Uberako San Paulo jaietan. Besteak beste, herri afaria, kukainak edo txokolate-jana izan ziren. Mus Txapelketan, berriz, 16 bikote izan ziren lehian, eta Albisua eta Txara izan ziren irabazleak.



ETXEKO ARDURAK TRUKATZEKO IKASTAROA

Hamabost gizonak eta hamabost emakumek dihardute etxeako ardurak gizonen eta emakumeen artean trukatzeko lantegian. Goiko argazkian, emakume taldea, Alitxu Martínez del Campo iturgintzako irakaslearekin eta beheko argazkian, gizonak, Unai Magunazelaia sukaldariarekin. Emakumeek iturgintza, elektrizitatea, brikolajea eta etxeako ekologia landuko dituzte eta gizonak, berriz, jostintza, lisatzea edo sukaldaritza. Teorian behintzat kontrako sexuari dagozkien lanak ikasteko jarrera ezin hobea erakutsi dute denek.

IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak	Paper pintatuak
Moketa eta sintasola	Harea zorrotada
Iztuku esponjatua	Iztuku faltua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

ARALAR
TABERNA

Goizeko **8:30**etik
aurrera zabalik.
Asteburuetan
11:00etatik aurrera.

**Bergarako
kaferik onena!**

Matxiategi 3

HERRIKO ETXEA

Eguneko menua+kafea: **6,95** euro
Gaueko menua: **7,00** euro

Eta pintxoak **0,70** euro!

Zatoz!
Bidekurutzeta 23 BERGARA Tel. 943 76 55 23

MINGAINARITIRAKA

Pili
García

UDALETXEKO JAKINARAZLEA

Legazpiarra jaiotzez, hamabi urte dela Bergaran bizi da. Taun-Tauneko kidea izandakoa, Eroskin ibili da lanean, eta urria ezker Bergarako Udaleko jakinarazlea da. Bi seme-alaba ditu: Andoni, 3 urte, eta Jone, zazpi hilabete besterik ez duena.

Laneko gauzarik onena eta txarrena?

Onena ibiltzea tokatzen zaidala, eta txarrena entregatzen ditudan gauza gehienak jendearen gustukoak ez izatea, ordaindu beharreko kontuak izaten dira-eta.

Txikitan zer izatea nahi zenuen?

Txikitan ez dakit. Gaztaroan artista izan nahi nuen.

Ikasle ona zinen?

Garbi neukanean zertarako ikasten nuen, bai.

Besteengan gehien estimatzen duzuna?

Zintzotasuna.

Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?

Seme-alabengatik, aisialdirako denbora laburra daukat, baina ahal dudanean, mendira edo eskalatzera joatea gustatzen zait.

Asteko egunik onena? Urtaro bat?

Zapatua, lana atzean uzten delako eta oraindik ere domeka geratzen delako. Urtarora, berriz, udaberria.

Liburu bat/Filma bat/Musika talde bat?

Los pilares de la tierra (K.Follet)/*Bailando con lobos*/Rosana.

Antzerkian ibilitakoa zara. Aktorerik gustukoenak?

Whoopy Goldberg eta Angel Alkain.

Egindako azken oparia? Eta jasotako azkena?

Egindakoa, *Geyperman* bat, Andoniri. Eta jasotakoa, niki bat.

Bizitzan, zeri ematen diozu lehentasuna?

Eguneroko bizitzari.

Beldurra, zeri?

Gerra bizi izatea beldurgarria izan behar da; ez nuke nahi.

Telebista ala irratia? Programa bat?

Irratia gehiago gustatu arren, telebista ikusten dut gehiago.

Shin Chan egunero ikusten dugu etxean.

Edaririk eta janaririk gustukoenak?

Edaria, ura eta ardoa. Jateko, edozein fruta.

Bidaia bat, nora egingo zenuke?

Yosemitea, Kaliforniara.

Derbirako pronostiko bat?

Realak irabaziko du, 1-2.

EDU MENDIBIL

BERGARARRAKMUNDUAN

ANA ETA MERTXE ALMEIDA

32 ETA 36 URTE / LA PALMAN BIZI DIRA

“Bizimodu lasaia da hemengoa, kanariarrak eurak ere oso trankilak dira-eta”

EDU MENDIBIL

Ana (argazkian, ezkerrekoa) eta Mertxe Almeida ahizpak La Palman bizi dira. Anak 14 urte daromatza Kanarietan (aurretik Fuerteventuran bizi izan zen), eta Mertxeri dagokionez, martxoan lau urte izango dira La Palmara joan zela. Mertxek azaldu digunez, “18 urte nituela Bergaratik alde egin nuen: Salamancan Zuzenbide ikasketak egin nituen, eta, Erasmus beka bati esker, Zuzenbide Ekonomiko Europarra ikasi nuen Würzburg-en, Alemanian, hango unibertsitatea Salamancakoarekin senidetuta zegoen-eta. Ikasketak bukatzean lana aurkitu nuen, eta 1999ra arte egon nintzen han. Alemanian nengoela, ahizpari bisita egitera etorri nintzen La Palmara, eta Bergaran edo inguruan lanik topatzen ez nuenez, hemen probatzea erabaki nuen”.

Orain dela lau urte-tik elkarrengandik oso gertu bizi dira. Anak pub bat zabaldu zuen orain dela urte batzuk eta Mer-

“*La Palmako azaleraren %80. babestutako gune naturala da; berde asko du uharteak*”

txe aholkularitza/etxe agentzia enpresa propioa dauka, nagusiki, bezero alemani zuzendutakoa; izan ere aleman asko dago La Palman.

Oso uharte txikia da La Palma, eta Mertxeren esanetan, ez dauka zerikusirik Kanarietako gainerako uharteekin: “80.000 biztanle inguru ditu, eta ez du beste uharteek daukaten horrenbesteko turista kopurua. Uhartearen azaleraren %80 babestutako gune

naturala da: berde asko eta hondartza gutxi duen uharteak da eta ez dute beste uharteek turismo-arekiko duten mendekotasuna. Hemengoa landa turismoa da; *senderismoa* egin nahi dutenendako, ezin hobea”.

Anak dioenez, “bizimodu lasaia da hemengoa, kanariarrak ere oso trankilak dira-eta. Kanpoko jendeari kostatu egiten zaigu hemengo bizimodura ohitzea. Kanarietan eta artean Kanarietako uharte txiki baten bizi izateak baditu bere eragozpenak: bizimoduaren kostua, etxebizitza edo janaria oso garestiak dira eta ez duzu aurkitzen Tenerifen edo halako uharte handietan dituzun gauzak. Baina aldeko gauzak ere badauzka: udaberriko eguraldia urte osoan eta erabateko lasaitasuna; hiri handietako larritasunik ez dago hemen”.

Anak Kanarietan jarraitu nahi du eta Mertxe da Bergara gehien sumatzen duena faltan: “Lagunekin-eta hartu-eman ia erabat galdu dut, baina familiak asko tiratzen du eta bueltatzeko aukera hor dago. Urteak igaro arren, hangoa sentitzen naiz”.



AGIRRE JANTZIDENDA

%50

Zatoz Bidekurutzeta 18ra!

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

ELKARRIZKETA

AGUSTIN ARANTZABAL/REALEKO KAPITAINA

“Orain arte bezala partiduz partidu jarraitu nahi dugu, helbururik finkatu barik”

EDU MENDIBIL

Athleticen aurkako derbiaren atarian, Agustin Arantzabal Realeko kapitainarekin egin dugu berba. Rekarterekin batera, partidu guztiak osorik jokatu dituen Realeko jokalaria bakarra da Agustin.

Lehen itzulia amaitu eta gero liderrak zarete, partidurik galdu barik. Liga Realen eta Real Madrilen artean erabakiko dela dirudi...

Liga irabaztea oso zaila izango da. Orain arte bezala jarraitu nahi dugu, partiduz partidu, eta inolako helbururik finkatu barik. Egia da liga irabazteko aukera hor dagoela eta ezin hobeto gaudela, lidertzan eta Real Madril bost puntura. Baina Real Madrilek sekulako taldea dauka, eta edozer gerta daiteke. Atzetik datorren Valentziak ere liga eskuratzeko lehian jardungo du. Gu orain arteko jokoari eusten ahaleginduko gara, eta ikusiko da non amaitzen dugun.

Jokalarien artean komentatuko zenuten liga irabazteko aukera...

Gu oso pozik gaude, baina badakigu bide luzea geratzen dela oraindik. Lehen itzulian 43 puntu lortu ditugu, eta, oker ez bana-

go, iaz 47 punturekin amaitu genuen liga.

Aurreko urteotan hain gaizki ibili ondoren, zein da aurreten hor goian egoteko arrazoia?

Zaila da esatea. Aurrendenboraldian ez genukeen sinistuko horrela ibili behar ginenik. Baina hasieratik gauzak ondo joan

“Nire iritziz, ligako azken zatian, Valentziak ere liga eskuratzeko lehian jardungo du”

zitzazkigun, konfiantza hartuz joan ginen, lesioekin ere ez dugu arazo larririk izan, eta ordezkoei jokatu dutenean ere partiduak irabazteko gauza garelako erakutsi dugu. Denoueix? Lan handia egin eta gauza gutxi esaten dituen gizona da Denoueix, eta emaitzak hor daude. Dena dela, beti pentsatu izan dut joka-

lariak direla partiduak aurrera ateratzen dituztenak.

Bestalde, hainbat mediotan bi liga irabazi zituen taldearekin konparatu izan dute gauz egungoa. Zer deritzozu?

Garai diferenteak dira eta gauzak asko aldatu dira orduetik hona, baita futbolearen ere. Talde hark egin zuena sekulakoa izan zen, eta gipuzkoarrondako lortu zuten benetan txapela kentzeko izan zen. Hura berriro errepikatzea zaila izango da. Hala ere, lehen postuari eusten ahaleginduko gara, eta ikusiko da zer lortzeko gauza garen. Edozelan ere, 1980ko hamarkadako taldeak lortutakoa hor dago, eta guk oraindik ez dugu ezer irabazi.

Domekan, Athleticen aurkako derbia duzue. Lider izanda, Reala da faborito?

Derbi baten sailkapenak ez du gauza handirik esaten, eta bi taldeok ere aukera berdintsuak ditugu partidua irabazteko. San Mamesko zaleek asko presionatzen dute eta Athleticeko jokalariek ere oso motibatuta zelairatuko dira, ziur. Orain arteko partiduetan moduan jokatu ahaleginduko gara, eta, hasierabaten, hiru puntuak eskuratzeko izango da gure helburua, bethi moduan. Ea partidu ona egiten dugun domekan.



ARTIBOIA

Kadete mailako bi saskibaloi taldeen partiduak, bihar, kiroldegian

E.M.

Bergara KEko kadete mailako bi saskibaloi taldeek kiroldegian jokatu dute bihar, zapatua, 12:00etan. Bergarako bi taldeak Gipuzkoako Ligako multzo berean daude: Gros eta Azpeitia hartuko dituzte.

Iker Barberok entrenatzen duen taldeak bigarren fasean jokatutako hiru partiduak irabazi ditu. Bihar, Azpeitiaren aurka jokatuko du. Fernando Moretónen eta Mikel Etxeberriaren kadete taldeak azpeitiarren aurka galdu zuen aurreko jardunaldian (59-38), eta bihar, Gros hartuko dute.

Argazkian, Moretónen eta Etxeberriak zuzentzen duten taldea: zutik, Moretón, Antxon Hernández, Arkaitz González, Igor Moracho, David González, Ander Arazkónaga eta Etxeberria; makurtuta, Jon Arteaga, Asier Vicente, Ander García eta Iñaki Olaetxea.



AITOR URIZAR

Argazkiko kadete taldeak Grosen aurka jokatuko du bihar eguerdian kiroldegian.

Kadeteen taldean jardun arren, Hernández eta García infantilak dira. Biek ere Euskadiko Selektzio infantilarekin entrenatzen dihardute, eta Espainiako Txapelketa jokatuko dute, ziurrenik.

Gipuzkoako Ligan zortzi talde daude. Bergarako bi taldeek elkarren aurka jokatuko dute datorren astean. Berriak, <http://groups.msn.com/bergarabasket/> helbidean jaso daitezke.

Gimnastak, egoera eskasean entrenatzen

E.M.

Ariznoa taldeko hainbat gimnastaren gurasoak kezu azaldu dira euren alabek egoera eskasean entrenatzen dabilzako. Hain zuzen ere, Ariznoa Gimnasia Erritmikoko neskatxa gazteenak (4 eta 7 urte bitartekoek) Matxiategiko Aranzadi Ikastolako gimnasioan entrenatzen dira egubakoitz arratsaldeetan. Gurasoen arabera, “ez dute berogailurik pizten gimnasioan, eta gure alabek hotz handia pasatzen dute. Ilusio ikaragarria daukate gimnasia egiteko, baina baldintza horietan ezinezkoa da behar den moduan entrenatzea”. Zortzi neska jarduten dute gimnasioa horretan entrenatzen.

Iñaki Ugarteburu Kirol Zerbizuko arduradunaren arabera, “berogailuarena gimnasio guztien arazoa da, Miguel Altunan, Ipintzan eta Mariaren Lagundian



Ariznoa taldeko gimnasta bat.

beste horrenbeste gertatzen da eta. Kontua da berogailua jartzekotan ikastetxe osorako jartzea behar dela. Onartzen dugu gimnasioen egoera ez dela nahi bezain ona, baina oraingoz, konponbide zaila du arazo horrek”.



ARTXIBOA

Senior mailako nesken taldeak behar-beharrezkoa du bihar irabaztea.

ESKUBALOIA

Senior nesken taldeak hil edo biziko partidua, bihar, San Adrianen aurka

Senior taldeaz gain, kadete mailako neskek Ereintzaren aurka jokatu dute kiroldegian

E.M.

Senior mailako nesken eskubaloia taldeak Bilboko San Adrian taldearen aurka jokatu du bihar, zapatua, kiroldegian, 18:00etan. Jaitsiera postuetatik ihes egiteko, etxeok beharrezkoa dute irabaztea.

Josu Zeziagak eta Xabier Lijók zuzentzen duten taldea zortzigarren dago sailkapenean, Salesianos eta Muskiz taldeen aurretik, hain zuzen ere. Bihar Bergarak bisitari izango duten taldea, berriz, euren aurretik dago, hiru punturen aldearekin. Horrela, bihar bilbotarrei irabaziz gero, urrats garrantzitsua emango lukete etxeok mailari eusteko. Hala ere, ez dute partidua erraza izango. Entrenatzaileek azpimarratu dutenez, zaleen laguntza

ezinbestekoa izango da partidua aurrera ateratzeko. Lijó entrenatzailearen esanetan, "biharko partidua oso garrantzitsua da guretzako, eta gure onena eman beharko dugu bi puntuak eskuratzeko".

Begarak hiru partidua irabazi eta gainerako zazpiak galdu egin ditu. Domekan, Elgoibarren galdu zuten bergarrek, 22-12. Lijóren hitzetan, "lehenbiziko ordu laurdenean partidua nahi-

San Adrian Bergararen aurretik dago sailkapenean, hiru punturen aldearekin

ko parekatuta egon zen, baina handik aurrera gu baino talde hobea dutela erakutsi ziguten elgoibartarrek. Bigarren zatian, gure errendimenduak nabarmen behera egin zuen".

Liga amaitzeko zortzi jardunaldi falta dira. Bergarako entrenatzailearen iritziz, hiru partidua irabaztea nahikoa izango da mailari eusteko: "Hamabi puntu lortzea da gure lehenbiziko helburua, eta ahal den lasterren lortzen baditugu, askoz hobeto. Gure taldeak kalitatea dauka, eta gauzak okertzen ez badira, eutsiko diogu mailari".

BESTE BI PARTIDU KIROLDEGIAN
Zapatuan, kadete mailako nesken taldeak Ereintzaren aurka jokatu du, kiroldegian, 16:30ean; eta domekan, gazte mutilen taldeak Arrasate hartuko du, 12:00etan.

Bergara-Trintxerpe, zapatuan Agorrosinen, 16:00etan

E.M.

Joan den zapatuan Elgoibarren aurka 1-5 galdu eta gero, Bergara KEko preferenteko futbol taldeak Trintxerperen aurka jokatu du bihar, zapatua, Agorrosinen, 16:00etan. Bergararrak postu bat beherago daude sailkapenean: seigarren, 35 punturekin. Bihar Agorrosinen jokatu duen Trintxerpe taldea mahoneroen atzetik dago, 32 punturekin. Kontuak kontu, Juana Garairen mutilek aukera paregabea galdu zuten azken jardunaldian laugarren postura jauzi egiteko. Biharko partiduan Xabier Arregi antzuolarra talde-

ra itzuliko da, Elgoibarren aurka zigor-partidua bete ondoren. Trintxerpek 5-2 irabazi zion azken jardunaldian laugarren tokian dagoen Anaitasuna taldeari.

NESKAK, MUTRIKUREN AURKA

Igor Larrañagak zuzentzen duen nesken futbol taldeak domekan jokatu du, Mutrikuren aurka, Ipintzan, 16:00etan. Azken jardunaldian, Urolan nagusitu ziren, 0-1. Zapatuan, berriz, beste bi partidua izango dira Ipintzan: infantil taldeak Ordizia hartuko du, 11:00etan, eta arratsaldean, Antzuolaren eta Bergararen arteko gazte mailako derbia izango da, 17:45ean.

Udaberri Txapelketa eta Euskal Liga, gaur, frontoian

E.M.

Udaberri Txapelketako eta Euskal Ligako partidua bana jokatu dira gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan. 19:30ean hasiko da jaialdia. Lehenbizi, Mikel Salegi eta Ibai Altuna gazte mailako bikoteak Beasaingo Burumendi taldeko ordezkarien aurka jokatu du. Bergarrek galdu egin zuten Udaberri Txapelketako lehen jardunaldian, aurreko asteburuan, Azpeitian (22-11). Horrenbestez, gaurko partidua irabazteak berebiziko garrantzia dauka bergarrendako.

Gazte mailako partiduen ostean, Euskal Ligako jokatu da: Joseba Herranek eta Ander Muruguzak osatutako bikoteak Zaramagako pilotariei aurre egingo die. Igor Gutiérrezek min dauka eskumako eskuan abendua ezkerreko, eta, horren ondorioz, ez du jokatu datozen asteotan. Aurreko zapatuan, Herranek ordezkatu zuen Igor. Herranek eta Muguruzak 22-6 galdu zuten Amezketan. Bergarrek ez dabilta ondo, jokatu bi partidua galdu egin dituzte-eta. Gaur, lehen partidua irabaz dezakete; bikote arabar bat izango dute aurkari.

FOTOKIROLA



Debagoieneko Pala Zirkuituko irabazleak

Asier Muruamendiaraz eta Jaime Acedo bergarrek irabazi dute Debagoieneko Kirol Zerbitzuek antolatutako Pala Zirkuitua. Txapelketan eurak izan dira erregularrenak, eta, hala, aurreko zapatuan (hilak 25), irabazleei zegokien trofeoa jaso zuten Arrasateko Uarkape pilotalekuan.

LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

- 09:30: Torrekua-Dedopafarru. **Aterpe**
- 10:30: Aterpe-Canalejas. **Dedopafarru**
- 19:00: Mongatxurak-Bedárreta. **Las p. de Sa.**
- 20:00: Irubide-Las putas de Satan. **Mongatxu.**

DOMEKAN, BARRUAN

- 09:30: A Ze Flaxa-Txipiron. **Pirulotarrak**
- 10:30: Bildurbarek-Pirulotarrak. **Txipiron**
- 16:00: K.Piperrak.-Errotagain. **Bayer**
- 17:00: Bayer-TNT. **Artusamak**
- 18:00: Deore-Artusamak. **TNT**

OHARRA

ATZERATUTAKO PARTIDUAK

Datozen asteotan atzeratutako partidua jokatu beharko dira eta ez da egongo berriz atzeratzeko aukerarik. Jokatzerik ez duten taldeei partidua galdutzat emango zaie baina ez zaizkie punturik kenduko garaiz abisatu ezkerre.

Emanaldia 20:00etan izango da, eta sei lan egingo ditu San Pedroko organoan

Jean Paul Imbert-en organo emanaldia bihar, San Pedron

MONIKA BELASTEGI

Jean Paul Imbert frantziarrak organo emanaldien bigarrena egingo du bihar, zapatua, 20:00etan, San Pedro elizan. Emanaldia Organo Erromantikoaren nazioarteko IV. zikloaren barruan dago. Organo jotzaile frantziarrak sei lan egingo ditu.

Jean Paul Imbert organo jotzaile frantziarrak emanaldia egingo du bihar, zapatua, Organo Erromantikoaren nazioarteko IV. zikloaren barruan.

Zikloa Azkoitia, Azpeitia eta Bergarako Udalek antolatu dute eta urtarrila eta otsaila bitartean izen handiko nazioarteko hainbat organo jotzailek emanaldia egingo dute aipatutako herrietan.

JEAN PAUL IMBERT

Jean Paul Imbert 1942an jaio zen. Clermont-Ferrand hirian ikasi zuen pianoa eta organoa. Gero, Pierre Cochereau eta Jean Guillou maisuen eskolak jaso zituen, eta azken horren laguntzaile bihurtuta Saint-Eustachen egon zen 1971 eta 1993 urte bitartean.

Gaur egun, Alpe de Huez-eko Perpetuo Socorroren Andre Mariaren elizako organo jotzailea da. Pariseko Schola Cantorum-eko irakaslea da eta eskola magistralak ematen ditu Europako hainbat herritan.

Kontzertu emaile gisa Europako herri askotan, Ameriketako Estatu Batuetan, Errusian, Kanadan eta beste hainbat lekutan ibili da. Hainbat CD grabatu ditu Europako organo garrantzitsuetan eta Bach musikariaren eskolako eta organo erromantikoaren jarraitzaile sutsutzat du bere burua.



Irudian Jean Paul Imbert organo jotzailea.

Emanaldiko egitaraua

Versets de vêpres improvisés
P. Cochereau (1924-1984)
Jeanne Joulain-ek egokitua
Flûtes, ondulants, fonds, tutti

La flûte enchantée de Mozart
L. Lefeburu-Wely (1817-1869)

Choral: Komm süßer Tod
J.S. Bach (1685-1750)
Adaptation à l'orgue de Virgil FOX

Prélude, fugue et variation
C. Franck (1822-1890)

Allegro vivace
C.M. Widor (1844-1937)
5. sinfoniatik

Bach izenari buruzko preludioa eta fuga
F. Liszt (1811-1869)

Talde ugarik abestuko dute Santa Ageda bezperan

MONIKA BELASTEGI

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera, herriko hainbat talde kantuan ibiliko dira herriko kaleetan barrena urteetako ohiturari jarraituz. Batzuk arratsaldean eta beste batzuk iluntzean ibiliko dira.

Ikastetxeetako neska-mutikoak, Jardun Euskara elkarte bertsu eskolako ikasleak, San Joxepe abesbatza eta Alai taldea ibiliko dira, besteak beste, Santa Ageda kantuan. Guztira 1.000tik gora lagunek ohiturari eutsi eta kantuan ibiliko dira herriko kaleetan barrena.

Aranzadi ikastolari dagokionez, 3 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoak 15:15 aldera aterako dira kantuan, eta DBH eta Batxilergokoak, 19:00etan.

Mariaren Lagundiako haurrak, berriz, 8 eta 12 urte artekoak 11:00etan arituko dira kan-

tuan eta 3 eta 8 urte bitartekoak 15:00etan.

San Martin ikastetxeak dagokionez, 2tik 12ra arteko neska-mutikoak ibiliko dira kantuan 15:30etik 16:30era bitartean.

JARDUN ETA SAN JOXEPE ERE KANTU
Jardun elkarte bertsu eskolako taldea eta San Joxepeko abesbatza ere kalez kale ibiliko dira Santa Ageda bezperan. Jarduneko taldea arratsaldean ibiliko kantuan, eta San Joxepe abesbatza, berriz, eguerdian.

San Joxepeko abesbatzak 10:30ak aldera ekingo bere ibilbideari, Moja Zaharrek Handik Mizpirualde Erresistentziara joango dira eta ondoren besteak beste, Mariaren Lagundian, Bidekurutzetan, San Martin plazan, Simon Arrietan eta Fraiskozurin abestuko dute. Santa Agedako zein San Martin kantua eskainiko ditu erretzuen abesbatzak.



Milatik gora lagun ibiliko da Santa Ageda kantuan otsailaren 4an.



Juan Madariagaren hitzaldia hilaren 4an

Udal Agiritegiak antolatutako Euskal Herriko historiaren gaineko hitzaldi sortaren seigarrena Juan Madariaga Historian katedradunak eta Filozofia eta Letretan lizentziatuak egingo du datorren martitzenean, otsailak 4, 19:30ean, Miguel Altuna institutuko areto nagusian.

Herioa eta bizidunak: ikuspegi historiko bat gaia jorratuko du Madariagak. Aro ezberdinetan Euskal Herrian heriotzaren aurrean egon diren jokoerak aztertuko ditu./M.B.

KULTURAPILULAK

Asier Altunaren 'Topeka' Clermont Ferrandeko jaialdia

Asier Altuna *Kixiren Topeka* film laburrak Clermont Ferrand-eko Jaialdian jokatuko den Nazioarteko Filaburren Merkatuan hartu du parte. Jaialdia otsailaren 3an hasi eta 7ra bitartean izango da. Altunaren lana otsailaren 6an emango dute parte handian. Bergararekin batera estatuko beste zortzi lanek ere hartu dute parte: Emanaldi horien azokan jarriko dituzten erakusmahaiak zinema munduko hainbat instituzioren emena dira.

E, TXO!

GUREGAIK/ INTERNET ETA LANA

EGA-RAKO IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Euskara Gaitasun Agiria eskuratzeko probak martxoan hasiko dituzte. Gipuzkoan otsailaren 3ra arte dago zabalik izena emateko epea; interesatuek Gipuzkoako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan eman beharko dute izena. Agiria eskuratzeko lehen azterketa, Atariko Proba, martxoaren 8an egingo dute.

ENPRESA IDEIA ONENAREN LEHIAKETA

Deustuko Unibertsitateak lehiaketa horretarako deialdia egin du. Aurten go ikasturtean, Batxilergoko lehen eta bigarren mailetan eta heziketa zikloetan dihardutenei dago zuzenduta lehiaketa hori. Banaka zein taldeka egin daiteke lana, eta nork bere eskolan entregatu beharko ditu lanok. Apirilaren 14an bukatuko da lanak entregatzeko epea. Informazio zabalagoa nahi izanez gero, honako telefono zenbakietara dei dezakezue: 943 27 37 74 eta 943 28 86 99.


Euskal Herriko Unibertsitateak bi webgune jarri ditu sarean, lana bilatzeko

AINZANE IRIZAR

Ikasleei eta enpresei zuzendutako bi webgune jarri ditu sarean Euskal Herriko Unibertsitateak. Webgune horien helburua da ikasleak eta enpresak elkartzea erraztuko duten bideak bultzatzea.

PraktiGes eta *Lanbila* izena dute webgune bi horiek. *www.prakti-ges-online.net* webgunearen helburua da unibertsitateko ikasleei hainbat erakunde eta enpresatan euren ikasketekin lotutako praktikak egiteko bidea erraztea. Horrela, ez dute ibili behar izango hara eta hona, paperak betetzen, eskaerak egiten eta erantzunen zain.

Bestetik, *www.lanbila-online.net* webgunea dugu. Webgune horren helburua da, alde batetik, unibertsitateko ikasketak bukatu berri dituzten EHUko ikasleei lan esparruan barneratzeko erraztasunak ematea; eta bestetik, enpresei ere erraztasunak ematea, profesional kualifikatuak lortzeko. Webgune horretan, ikasleek aukera dute curri-



AITOR URIZAR

Webgune horien helburua da ikasleei lana eta praktikak egiteko bidea erraztea.

culumak sarean jarri eta, era berean, lan eskaintzen berri jasotzeko. Ikasketa motaren arabera daude sailkatuta enpresek eta

erakundeek eskaintako lanpostu eta praktika-aldiak.

Bestalde, bi webgune horietan sartu ahal izateko, beharrezkoa

da unibertsitateko ikaslea edo ikasle ohia izatea. Izan ere, NA zenbakia eman behar da webgunerara sartzeko.



%50

erainoko
beherapenak



Otalora z/g, ARRASATE
943 79 82 68



Irala 5, BERGARA
943 76 27 16



Barrenkalea 35, BERGARA
943 76 29 46

ZAHARREN ETXETIK

36ko gerran preso egon zirenek dirulaguntzak jasotzeko aukera izango dute, Eusko Jaurlaritzaren ekimenari esker

EDU MENDIBIL

Jaurlaritzak abian jarritako ekimenari esker, Espainiako gerran kartzeletan edo kontzentrazio-esparruetan egon ziren herritarrek dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte. Eskariak egiteko epea otsailaren 28an amaituko da.

Kalte-ordainak jaso ahal izateko, gerraren ondorioz askatasun barik sei hilabete baino gehiago egon izana beharrezkoa da. Era berean, Euskal Autonomia Erki-degoan errolatuta egotea nahitaezkoa da. Askatasun barik egon zen laguna hilda badago, haren alargunak edo bikotekideak jaso ahal izango du kalte-ordaina. Erretiro-pentsioa edo gerrako beste pensioaren bat jasotzen dutenek ere eskatu ahal izango dituzte laguntzak; ez,

ordea, 1991n arrazoi beragatik dirulaguntzak jaso zituztenek.

HILABETEKO EPEA

Eusko Jaurlaritzak ekimen horretarako 38 milioi euro bideratuko ditu. Dirulaguntza jasotzeko, estatuko Zigor Erakundeak egin beharreko agiria eskuratu beharra dago, 91 335 50 31 telefono zenbakira deituta hain zuzen ere. Erakunde horrek ziurtatuko du eskaera egin duen pertsona presondegian edo bestelakoetan egon den. Denbora askorik ez dagoenez, Zigor Erakundeak norberaren kasua aztertzen ari dela ziurtatzen duen abisua izatearekin nahikoa izango da kalte-ordainak eskatzeko.

Eskaera orriak eta bete beharreko baldintzak Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Sailean (943 02 28 25 telefono zenbakian) edo Udaleko Ongizate Zerbitzuan (943 77 91 65) eskura daitezke.




Francoren aliatu zen aire-armada alemaniarrek 1937ko apirilean Gernika bonbardatu zueneko irudia.

Informatika ikastaroak antolatu dituzte San Joxepe elkarteak

E.M.

San Joxepe erretiratuen elkarteak 2003ko lehen hiruhilabeteko informatika ikastaroen egutegia aditzera eman du. Horrela, otsailaren 10etik aurrera nagusien dako ikastaroak izango dira San Joxepeko Informatika Gelan. Informatika hasiera ikastaroa otsailaren 10etik martxoaren 19ra bitartean izango da, astelehenean eta eguaztenetan, 10:00etatik 13:00etara. Internet Sakontze ikastaroa martitzenetan eta eguenean eskainiko dute, 11:00etatik 13:00etara, otsailaren 11tik martxoaren 20ra. Eta Edizio ikastaroa, berriz, otsailaren 11tik martxoaren 25era bitarteko martitzenetan izango da, 17:00etatik 19:00etara. Era berean, Boluntarioen Prestakuntza ikastaroa ere iragarri dute lehen hiruhilabeterako, egunak oraindik zehaztu barik dauden arren.



San Joxepeko informatika ikastaroek oso harrera ona izan dute orain arte.

San Joxepe elkarteak etengabeko hobekuntza bere egin du, eta, horren lekuko, informatika ikastaroek izan duten harrera ona

orain dela hiru urte Informatika Gela zabaldu zutenetik. Izan ere, erabiltzaileen kopurua aste batek bestera handituz doa.



Santa Ageda bezperan kalez kale kantuan

San Joxepe abesbatzako kideak kantuan egitera irtengo dira martitzenetan, hilaren 4an, Santa Ageda bezperan. Jose Patxi Azkaratek zuzendutako abeslariak (55 bat lagun dira taldean) Moja Zaharretan ekingo diote ibilbideari, 10:30ak aldera, eta gero, Mizpirualde egoitzan, Mariaren Lagundian, Bidekurutzetan, San Martin plazan, Simon Arrietan eta Fraiskozurri eskainiko dituzte Santa Agedaren eta San Martinen koplak. Ondoren, abeslariak bazkaria egingo dute San Joxepen.



**Matxiategi
Elektragintza
S.L.**

ELEKTRIZITATE MATERIALEN
SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. BERGARA. 943 76 19 94.

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua


Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKORBEREZIBAR

Zein auzotako elizaren kanpandorra da ezkerrekoa eta nongo elizakoa eskumako arkupea?

GALDEDEBALDE

1.

Nork egingo du datorren martitzenean heriotzaren gaineko hitzaldia Miguel Altunan?

- A/ Juan Madariaga.
- B/ Vicente Molina.
- C/ Paul Andrade.

2.

Zein da San Xosepe abesbatzako zuzendaria gaur egun?

- A/ Jose Patxi Azkarate.
- B/ Fernando Azkarate.
- C/ Tomasa Zabaleta.

3.

Zeintzuk dira ligako partidu guztiak osorik jokatu dituzten Realeko jokalariek?

- A/ Rekarte eta Westerveld.
- B/ Rekarte eta Arantzabal.
- C/ Karpin eta Arantzabal.

PINTOREBERGARARRAKGAUR

Jose Mari Arteaga

EDU MENDIBIL

Bihar, zapatua, 74 urte egingo ditu Jose Mari Arteagak. Oraindik ere lumatxo marrazten jarraitzen du, egunero: "Pultsua eta bista ondo dauzkat oraindik, eta goizero marrazten dut, hiru bat orduz". Ume-umetan hasi zen marrazten, eta soldadutzara joan aurretik lumatxo egindako lanak egiteari ekin zion, gaur egun arte: "Simon Arrietak erakutsi zidan marrazten. Horixe izan da nire eskola bakarra. Lumatxo marrazten neure kontura ikasi nuen, betitik gustatu zait".

Ehunka lan egin ditu Jose Mari Arteagak: "Gehienak karpitetan gordeta dauzkat, etxean". Lumatxo ondo marrazteko sekretu bakarra duela dio: pazientzia. Bere hitzetan, "ordu asko behar izaten dira lan bat bukatzeko. Bergarako *Kristoa* behin baino gehiagotan marraztu izan dut, eta 40 bat ordu ematen ditut hura egiteko". Erretratuak egitea atsegin du, batez ere, "nahiz eta zailena izan". Egunotan Antzuolako plaza marrazten dabil. Bergaratik kanpora doanean ere argazki-kamera eramaten du aldean, gustatzen zaizkion lekuak marrazteko.

"Lumatxo marrazteko pazientzia behar da, ordu asko eman behar dira-eta"



E.M.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

HODEI GONZALEZendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Hodei!
Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Santa Ana** / Galde debalde: **1-A, 2-B, 3-C.**



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

La Bella Easo madalenak
700 g-ko poltsa.

1,49 €

248 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



2 XUKU

HARTU ORDAINDU 1

SAN PEDRO 14 TEL. 943 76 07 55

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

Pintura-lanak orokorrean
•
Pintura industrialia
•
Zoru arinak:
sintasolak, moketak...

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA



BERGARA
Julen Bilbao
Urtarrilaren 31n 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Alex Astiazaran
Otsailaren 1ean 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ainara Rubio
Urtarrilaren 28an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Aritz Rubio
Otsailaren 4an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Joanes Ruiz de Egin
Urtarrilaren 30ean
4 urte. Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Mireia Arietalenizbeazkoa
Urt. 31n 3 urte. Zorionak!
Gurasoak eta Leire.



BERGARA
Ibon Etxabarri
Urtarrilaren 29an 5 urte.
Urte askotarako!
Julen, Eider eta etxekoak.



BERGARA
Unai Irizar
Urtarrilaren 29an 7 urte.
Zorionak! Etxekoak,
Josu, Leire eta Danel.



BERGARA
Miren Carnicero
Otsailaren 6an 5 urte.
Zorionak eta muxu
handi bat! Etxekoak.



BERGARA
Joseba Carnicero
Otsailaren 6an 5 urte.
Zorionak eta muxu
handi bat! Etxekoak.



BERGARA
Alex Piñero
Otsailaren 1ean 4 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Ekaitz Irazola
Otsailaren 4an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Kevin Conde
Otsailaren 3an 11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
June Igarza
Urtarrilaren 31n 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Gorka Fernández
Otsailaren 2an 7 urte.
Zorionak! Aitona-amonak
eta osaba-izebak.



BERGARA
Julen Horrillo
Otsailaren 4an urteberria.
Urte askotarako!
Etxekoak, Ander eta Ar.

Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak!

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAREN agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia,
Barrenkalea 33
Antzuola: Udai Liburutegia,
astelehenetan 17:00etatik
19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua

Radio Bergara

Etxetresna elektrikoak
Sakelako telefonoak
Lanparak
Opariak

**San Pedro 25
BERGARA
943 76 19 89**

BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urte 8 BERGARA
943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

JOXAN ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29

FRONTOI TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

ZABALA

JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

Jose M. Martín

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotilea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

Kabutzia


ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tf. 943 76 56 62

ize der

ARTE DEKORATIBOKO
ikastaroak

943 76 71 05.
Arruriaga 2. BERGARA



**Laster,
GIDA 2003
zure etxean!**

Gida osatuen,
erabilgarriena eta berriena.

**BERGARAKO,
ANTZUOLAKO eta
ELGETAKO
denden
eta partikularren
telefonoen gida.**

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko urtarrilaren 31 / 144. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Iñigo Ramírezen Antzuolako ohituren gaineko liburua argitaratzeaz dago


AINTZANE IRIZAR

Antzuola Herria Ikerketa Bekaren laugarren emaitza kaleratzeaz dago. Iñigo Ramírez de Okarizen proposamenari eman zioten beka hori, eta *Antzinako usadio eta ohiturak* liburua prestatu du. Pare bat aste barru aurkeztuko dute, ziurrenik, liburu hori.

Oraingo astean bertan ateratzeko zen liburua inprimategitik. Orain, liburuaren aurkezpen ekitaldia prestatzen dihardute Iñigok berak eta Udaleko arduradunek. Ziurrenik, pare bat aste barru egingo dute aurkezpena.

MENTALITATEA AZTERGAI

Iñigo Ramírez de Okariz liburuaren egileak azaldu digunez, aspalditik zeukan era horretako liburu bat egiteko gogoia; izan ere, "orain arte Antzuolako nortasuna berreskuratu nahian argitaratu diren liburuetan, herriko argazkiak, herriko euskara, mapak eta horrelakoak jaso izan dira", adierazi digu Iñigok. "Gutxitan aztertu izan da mentalitatea, pentsaera, izaera...". Horregatik, "argazki zahar horiek



Argitaratuko duten liburuaren azala.

hiztun bihurtu" nahi izan ditu Iñigok. Irudi soiletatik haratago joan, eta XX. mende hasieratik 1960ra arteko ohitura, usadio eta mentalitateak aztertu ditu *Antzinako usadio eta ohiturak* lanean.

Batetik, mentalitate politikoa aztertu du; eta, bestetik, jaiotzarekin, ezkontzarekin eta heriotzarekin lotutako ohitura eta pentsaerak aztertu ditu.

Lan hori egiteko informazio iturri garrantzitsuena herriko pertsona edadetuak izan dira; 30 bat lagunekin berba egin du Iñigok liburua prestatzeko. Bestetik, herriko artxibategiko dokumentuak ere erabili ditu.

LAUGARREN IKERKETA BEKA

Iñigo Ramírezek aurkeztuko duen hori Antzuola Herria Ikerketa Bekaren laugarren emaitza izan da. Antzuolako Udalak egindako lehenengo deialdian, Jone Larrañagaren proposamenari eman zioten beka. Hark *Antzuolako hizkera* liburua egin zuen. Hurrengo Marijo Deograsiari eman zioten, eta Cesareo Gabarainen gainekoa izan zen; hirugarrena, berriz, Antxon Agirre Sorondoren *Antzuolako Larru Ontzea* liburua izan zen.

LABUR

Abesbatzan parte hartu nahi dutenendako deia

Antzuolako abesbatzan parte hartu nahi duten herritarrei zabalik dituzte talde horretako ateak. Kanturako zaletasuna, abildade apur bat eta gogoa izatea nahikoa dira abesbatzako partaide izateko. Gaur egun, 25 bat lagunek osatzen dute abesbatza; horietatik gehienak, emakumeak.

Jende beharrea daude hortaz. Abesbatzako partaide izan nahi dutenek entseguetara azaldu besterik ez dute. Eguaztenero izateko dituzte entseguak, 20:30ean Antzuolako udaletxean.

Sahararako janari ugari batu dute herriko dendetan

Eguaztenean bukatu zen Sahararako janaria eta dirua batzeko kanpaina herrian. Janari ugari batu dute herriko hainbat dendetan eta Herri Ikastetxean. Diruari dagokionez, oraindik ez dute batutako kontatzeko astirik izan.

Datorren astelehenean bidaliko dute batutako janari guztia Sahara aldera; erre-fuxiatu sahararren Tindoufeko kanpamentuetara, hain zuzen ere.

Kanpaina horretan parte hartu dutenei eskerrak ematen nahi dizkiete Antzuolako Udalak eta Anelkarrek.

Euskarazko 'Baloia' filma eskainiko dute

Oraingo domekan, euskarazko *Baloia* filma eskainiko dute herriko eskaintza zerbitzuko emandariaren barruan. Olanan etxean emango dute filma, ohikoa den moduan, 16:30ean.

Bestalde, gogoratu sarri-raren prezioa igo egin dutela bost zentimo, hain zuzen ere. Orain arte 1,05 euro kostatzen zen filma ikusteko sarria orain, berriz, 1,10 euro ordaintzen du behar da.

JAIK

San Blas eta Santa Ageda ospatuko dituzte

Otsailaren 3an da San Blas eguna, eta hurrengo zapatuan, hilak 8, ospatuko dute Basalde auzoan. Santu horren ermitan, San Blas ermitan, meza izango dute eguerdiko hamabietan. Mezaren ondoren, salda eta txorizoa banatuko diete bertaratzen diren guztiei; herriko trikitilariak ere parte hartuko dute jai horretan.

SANTA AGEDA ESKEAN, HAINBAT TALDE

Herriko hainbat talde ibiliko dira Santa Ageda bezperan, hilaren 4an, Santa Ageda eskean. Ohiturari jarraituz, herriko kintoak ibiliko dira, alde batetik, kantari. Goizean goiz irtengo dira kanturara eta herriko auzo, baserri eta

kaleetan egingo dute kantuan. Herri Ikastetxera ere joango dira kintoak, hango umeen gozamenarako. Ikasle guztiak irtengo dira kintoen abestiak entzuterako.

Iluntzean, berriz, 18:30ean, Antzuolako abesbatzako kideak irtengo dira Santa Ageda eskean. Batzen duten dirua Antzuolako DYArri laguntzeko izango da, anbulantzia berria erosteko.

Galartza auzoan ere ospatuko dute jai hori, hurrengo domekan, hilaren 9an. Hala, suziriak jaurtiko dituzte jaiak hasteko; 12:15ean, meza izango dute, eta mezaren ondoren, salda, pintxoak eta ardoa banatuko dituzte bertaratzen diren artean.



Hilaren 8an, zapatua, ospatuko dute Basalde auzoan San Blas eguna.

ARTXIBOA

KALTE-ORDAINAK DIRELA ETA, GERRAREN GAINEAN BERRIKETAN

Espainiako gerra gertutik bizi izan zuten Juanito Lizarralde, Paula Iturrinok eta Kruz Azkaratek

A.I.
Eusko Jaurlaritzak kalte-ordainak emango dizkie 36ko gerran preso egondakoei edo haien alargunei. Egoera horretan daudenek udaletxera jo dezakete informazio bila. Guk Espainiako gerra bizi izan zuten lagun batzuekin egin dugu berba.

Astelehenean, bazkalostean, elkartu ginen erretiratuaren egoitzan Kruz Azkarate, Paula Iturrino eta Juanito Lizarralderekin. Hainbat kontu entzuteko aukera izan genuen hantxe.

Hirurek bizi izan zuten Espainiako gerra, baina oso era ezberdinetan. Kruzek ez zuen parte hartu, baina, gainerako herritar guztiak moduan, gerra bera eta haren ondorioak bizi behar izan zituen. Paularen senarra, berriz, Jose Alberdi, Kordoban egon zen, lan behartuak egiten. Juanito Lizarralde, azkenik, kartzelan egon zen; etxean atxilotu, eta Donostiara eramán zuten, Ondarretako espetxera.

ESPETXEKO OROITZAPENAK

Horrelaxe gogoratzen ditu Juanitok egun haiek: "Etxera etorri ziran nere billa, eta Bergaresako autobus baten eramán giñuzten Ondarretako kartzelara hamalau lagun; urriaren 17xa zan, eta hurrengo egunian, 21 lagun hil zittuen. Zihero kuxkurtuta geratu giñan harekin". Bederatzi hilabete pasatu zituen kartzelan, eta oroitzapen mordoa dauzka: "Rekuerdo pillia dauzkat apuntata; orain dala gutxi dauzkat apuntiok hartuta".

90 urte dauzka Juanitok, baita oroimen ezin hobea ere; kartzelara zein ordutan iritsi ziren ere gogoratzen du: "Hamabixak laurden gutxiagotan sartu giñan;

"Gu kartzelara sartu eta hurrengo egunian, 21 lagun hil zittuen"

JUANITO LIZARRALDE

herriko hiru lagun egon giñan elkarrekin ziegan: Juanjoxeneko Juan Joxe, Txapel eta neu".

KALTE-ORDAINAK


Jaurlaritzak ematen dituen kalte-ordainen gainean ere galdetu diegu hiru lagun horiei. Juanitok segituan erantzun digu: "Aitta eta bixok egon giñan kartzelan; amak eta andriak, bizi ahal izateko, txarrixa, etxia eta dana saldu bihar izan zittuen. Gaiñera, aitta gaixotu egin zan kartzelan; zaldixendako purgia emon zotsen, eta hestelodixa zulatu jakon. Bizi guztian eduki zeban gaitz haura, eta hil be, haretzekin hil zan". Horra hor Juanitok eman zigun erantzuna. Dirua beti ondo etortzen den arren, ez ditu egindako kalteak ordaintzen.

Antzuolan dagoeneko 21 lagunek eskatu dituzte kalte-ordainak. Horietatik, Juanito da gerrako kaltetu zuzen bakarra; gainerakoak alargunak eta seme-alaba ezinduak dira. Dena dela, bada go oraindik eskaerak egiteko aukera, otsailaren 28ra arte, gizarte langilearekin egonda.



Juanito Lizarralde, Paula Iturrino eta Kruz Azkarate.

ATREBENTZIAEZPADA/ Laster KZGunia jarriko dabe. Internet erabiltzen dozu?



JULIAN IPARRAGIRRE
71 urte

Ez. Ikastaro bat egin neban Word-en eta Windowsen gaiñian, baiña Interneten ez naz ibilli; badaukat asmua KZGunerak ikastera juteko.



ANDONI AZKARATE
37 urte

Ez. Entzunda badaukat, baiña ez dot ezagutzen. Egunen baten igoal animauko naiz eta ikasiko dot, baiña momentuz, ez daukat astirik.



NURIA PRO
31 urte

Ez, sekula ez dot Internet erabili, eta ez daukat, gaiñera, interes haundirik be ikasteko. Gaiñera, ez daukat astirik ikastaruetara juteko.



MARCELA SIRI
33 urte

Bai. Ni Argentinakua naiz, eta hona etorri nitzanean hasi nitzan Internet erabiltzen, batez be, hango famílixiakin eta lagunekin komunikatzeko.



BALENTIN ZUBIKARAI
34 urte

Ez, horren gaiñian ez daukat idea haundirik. Nahiko nuke erabiltzen jakitzia, eta badakit ikastarurak egongo dirala, baiña ez daukat bat be astirik.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Otsailak 1
16:00: Antzuola-Amaiak Bat (2. erreg.)

PILOTA

Otsailak 1 (Gipuzkoako txapelk.)
17:30: Olalde-Andazpe (infantilak)


EMAITZAK

FUTBOLA

Bergara 3 Antzuola 1 (2. erreg.)
Antzuola 2 Eibartarrak 3 (Gazteak)

PILOTA

Udaberri Sarria
Olalde-Girizia (nagusiak eskuz) . 22-10
Olalde-Beharzana (nag. palet.) . 35-22



Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espedienteak bideratzen ditugu



Juan Cruz

ARGAZKIAK

Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Momentuko argazkiak

BITXITEGIA

Marrokineria
Erlojuak, Bitxiak
Opari gaiak

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko urtarrilaren 31 / 128. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95



Bost legealditan ezker abertzaleak izan dituen zinegotziek eta Talde Independenteko zinegotzi batzuek sinatu dute.

Batasuna legez kanpo lagatzea salatu dute

OXEL EROSTARBE

Herri Batasuna, Euskal Herriarrok eta Batasuna alderdiek Elgetan izandako zinegotziek eta Talde Independenteko zenbait zinegotzi Batasuna legez kanpo lagatzearen aurkako manifestua sinatu dute. Hori salatzeke, prentsaurrekoa eman zuten barikuan.

Askatasunaren alde gaudelako manifestua sinatu dute Elgetan Herri Batasuna, Euskal Herriarrok eta Batasuna alderdiek izandako zinegotziek eta Talde Independentek izandako zenbait zinegotzi. Barikuan, prentsaurrekoa eman zuten udaletxean. Manifestua sinatu duten zinegotziok bertan izan ziren.

Hurrengo lerroetan, oso-osorik irakur dezakezue manifestua: "Askatasunaren alde gaudelako: ideia eta proiektu guztiak gure herrian bere lekua izan behar dutela uste dugu. Orain arte bezala Elgetako kaleetan eta udaletxean ezker abertzalearen presentzia beharrezkoa ikusten dugu, askatasunez bere bidea jorratzeko. Euskal Herriaren aur-

kako eraso guztien aurrean, herri aske eta gizarte justuago baten alde borrokatzeko beharra inoiz baino premiazkoagoa delako. Askatasunen aurkako erasoei erantzunez gure herria eraikitzeke denon beharra dago, bakoitzak bere ideiak defendatuz, inolako bazterketarik gabe."

ILEGALIZAZIOAREN ERAGINA ELGETAN

Batasuna legez kanpo uzteko prozesuak herrian zein eragin izango duen azaldu dio Bittor Gallastegik GOIBEKOKALeri: "Elgetar zati handi baten ordezkariak ezin du normaltasunez lan egin, ilegalizazio prozesu baten barruan sartu gaituztelako. Eta horri ere aurre egin behar zaio. Beste lan batzuk egiteko indar handia eta denbora luzea kentzen

dizkigu. Aurrerantzean zelan antolatu-eta pentsatu behar da, orain arte bezala ezker abertzalearen presentziak herrian jarrai dezan".

Bestalde, Debagoieneko zenbait herritan Garzón epaileari osoko bilkuretako aktak bidaltzeko eskaera jaso dute. Oraingoz, Elgetako Udalean ez da horrelako eskaerarik jaso. Udalak ez dauka erabakita aktak bidaliko dituen edo ez.

EZ DA HAUTESKUNDEEI BEGIRA IZAN

Prentsaurrekoa ez dela hauteskondeei begira egin esan du Bittor Gallastegik: "Ez da izan hauteskondeei begira egindako pausoa. Bertan adierazi nahi genuen gauzetako bat izan zen argi dagoela gure presentzia beharrezkoa dela Elgetan eta Euskal Herri osoan. Baina presentzia hori ez da hauteskundeetan bakarrik islatzen. Ezker abertzalearen lana kaleko lana izan da beti, eta ez dakigu hauteskundeetara aurkezteko aukerarik ere izango dugun; hortaz, antolatu beharra dago, baina ez hauteskondeei begira, baizik eta Espainako gobernuaren erasoaren aurka."

"Prentsaurrekoa ez da hauteskondeei begira egin, baizik eta gobernuaren erasoaren aurka"

LAGUNTZAK, 36KO GERRAN PRESO EGON ZIRENEN DENTZAK

Elgetan ere eska daiteke dirulaguntza

Denera, 3.606.073 euro bideratuko ditu Jaurlearitzak, 36ko gerran preso egon zirenei kalte-ordaina emateko. Hain zuzen ere, laguntzak gerraren ondorioz espetze edo kontzentrazio-esparruren baten sei hilabetean edo sei hilabete baino luzeagoan askatasun-gabetzea jasan zutenek, haien alargunek edo seme-alaba ezinduek eska dezakete.

Preso egondakoek jasoko duten laguntza askatasun-gabetzearen emandako denboraren arabera izango da. Emango duten

kalte-ordaina, gehienez, 9.000 eurokoa izango da.

ELGETAN, ONGIZATE ZERBITZUETAN

Laguntza eskatu gura duten elgetarrek Lurralde Ordezkaritzan edo Udaleko Ongizate Zerbitzuetara jo behar dute. Elgetan ezin lehen eta eguen goizetan bertan ez dezakete laguntza eskatzeko eskaerak aurkeztu. Eta informazio zabalagoa nahi dutenek asteko bi egun horietan jo dezakete udaletxera. Otsailaren 28an amaituko da laguntzak eskatzeko epea.



Erretratuan, 36ko gerran hildako gudarien oroimenez Elgetan egindako ekitaldia.

ARAU SUBSIDIARIOAK

Hilabete dago alegazioak egiteko

Martitzenean (hilak 28), osoko bilkura egin zuten udaletxean, eta behin-behineko onarpena eman zieten Elgetako Plangintzaren Arau Subsidiarioei. EAJ-EAren aldeko botoekin onartu zuten dokumentua. Oposizioko hiru zinegotziak abstenitu egin ziren. Datorren hilean dokumentuari alegazioak egingo dizkiotela esan zuten. Datozen zortzi urteotan Elgetak izan dezakeen garapena jasotzen duen dokumentua udaletxean dago, eta edonork eska dezake. Oraingoz, gaztelaniaz

bakarrik dago, eta bi aste baino euskaraz ere egongo da. Oraindik aurrera, hilabete izango da elgetarrok alegazioak egiteko epea. Jasotako proposamenak onartu eta hartuta, hainbat aldatu egin diote lehenengo dokumentuari: Berraondokuak lur izan behar du (lehenengo dokumentu trial bezala jarraituko duen dokumentu bezala); Zabala Herriaren nosen eta Zetzto Gainen, aurrerantzean zehaztutakoa baino etxe gehiago egingo dituzte; kirolguneak ezin izango dituzte; kirolguneak ezin izango dituzte zehaztutakoan digune izendapena hartuko da.

ELKARRIZKETA

ALBERTO TELLERIA/ELGETAKO MAPA TOPONIMIKUAREN EGILLIA

“Mapa toponimikuakin gutxi erabiltzen ziran toki-izenak berreskuratu dittugu”

O.E.

Gaur, 20:30ian, *Elgetako Mapa Toponimikoa* aurkeztuko dabe liburategian. Alberto Telleria arduratu da mapia egittiaz. Harekin berba egin dogu, mapa toponimikua egitteko orduan izandako gora-beheren gainian.

Noiz hasi zinien mapa toponimikua egitten?

Mapa toponimikua egitteko asmua oin dala bi urte aurkeztu notsan kultura zinegotzixari. Hala be, Udalaren bittartez, iaz eskatu jakon dirulaguntzia Jaur-laritzari. Dirulaguntzia onartu ebenian hasi nintzan lanian, hau da, lekukuekin harremanetan jarri eta datuak batzen. Hori langintziori egin, batutako toki-izenak mapa baten jarri, zuzenketak egin eta inprentara eruan bittartian, urtebete pasau da.

Zeintzuk dira mapa toponimikuaren helburuak?


Lehenengo helburua mapa toponimikua bera egittia zan. Hori egitteko, toki izenak jaso nittuan. Eta horrekin, oso gutxi erabiltzen diran izenak berreskuratu dittugu; azken baten, memoria historikua berreskuratu dogu. Euskaltzaindiak eta Hiz-

kuntza Politikarako Sailordetzak emondako pausuak jarraituta, jasotako izenak bihar dan moduan izendatzen saiatu gara. Ze arazo topau ditzuzue mapia egitterako orduan?

Mugak zehazteko orduan izan dogu arazo gehixen. Diputazi-ñuak erabiltzen dittuan mapak ez dagoz ondo: Jalotza ez dabe Elgetan sartzen; Aixolako erreka aldeko mugak, erreka mugarri izanda, Elgetako lurretan sartzen dittue; Azurtza aldian be arazuak dabe, mugarrixak ez aldatu arren, Elgetako mugak aldatuta dabe-eta. Toki-izenak mapan ipintzeko orduan be izan dittugu arazuak. Kasu batzuetan ez dagolako argi paraje edo zonalde bat nun hasi eta nun amaitzen dan. Izen bakoi-tza bere tokixan jartzeko lanetan asko lagundu doste inguru horretako elgetarrek.

Zeinek lagundu dotsu mapia egitten?

Honek danok lagundu dustie mapia egitterako orduan: Maximo Arantzeta, Felix Gorrotxategi, Miren Villar, Jose Arozena, Kandido Elortza, Angel eta Juan Mari Gallastegi, Luis Atorrasagasti, Felix Garate zana, Juan Ramon Irazabal eta Enrike Gorrotxategi. Jakiña, danei emon nahi dotset eskerrak.



O.E.

LABUR

Meza berezixa astelehenian, San Blas eguna dala eta

Mezia 10:00etan izango da, eta San Blas opillak eta gozokixak 10:30ian bedeinkatuko dittue. Otsailaren 8xan, Arantzeta-ko San Blas ermittan izango da mezia, 13:00etan.

Kale bilkuria, Ane Miren Alberdiren eskubidien alde

Hilleko azkenengo bariku guztietan moduan, *Euskal Presoak Euskal Herrira* lelopian kale bilkuria izango da gaur, 20:00etan, plazan.

Gaurko bilkuria berezixa izango da. Izan be, plazan batzen diranak oin dala hiru aste Frantzian atxilotu zeben Ane Miren Alberdi elgetararen eskubidiak bete dai-ttezela eskatuko dabe.

Goibekoren loterixia kobratzeko azkenengo egunak

Gaur, 19:00xetatik 20:00etara jasoko dittue Gabonetako loterixan saritutako Goibekoren txartelak, GOIBEKOKALEko buleguan. Martxuaren 8xa eta 9xa izango dira txartelak jaso-ko dittuen azken eguna.

OTSAILAK 4, SANTA AGEDA BEZPERA

Eskolako umeak Santa Ageda eskean irtengo dira martitzenean

O.E.

Martitzenean, otsailaren 4an, Santa Ageda eskean irtengo dira eskola umeak. Erretratuan ikusten dugunez, oraingo astean, Santa Agedako kantua entseatzen jardun dute eskolan. Martitzenean, 14:30ean irtengo dira kantura, eta, makilak eskuan dituztela, herriko kaleetan barrena ibiliko dira. Batzen duten dirua Gabonetan batu zutenari gehituko diote. Eta, urtero moduan, horrekin ordainduko dute Aratusteetan egingo duten askaria.


ARATUSTEAK OTSAILAREN 28AN

Aratusteetan zertaz mozorrotu pentsatzen hasi dira zenbait elgetar. Aurten, otsailaren 28an ospatuko ditugu Aratusteak Elgetan. Egunez, eskolako umeendako zenbait ekintza izango dira eta gauean, nagusien txanda izango da. Aurten ere Mozorro Jaia izango da egun horretan gatzetxean.



O.E.

Martitzenean, Santa Ageda eskean irtengo dira eskolako umeak.



Lapurrak Arrota Azpi basarrixan

Hasarre dare Arrota Azpi basarriko ugazabak. Basarri onduan politto eukitzen daben lorategixari bisitia egin dotse lapurrek. Harrixak sarrittan kendu izan dotsez lehenau be, baiña aurreko astelehenian, arratsaldeko eguzki argittan, hantxe zeuken palmondua lapurtu zotsen. Norbait Arrota Azpikuen kontura lorategixa atontzen ete dabillen pentsatzen hasi dira. /O.E.

ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

Herriko
dantzariak,
1931n

Herriko dantzari eta txistularien argazki bat dakarkizuegu oraingo astean. Gerra aurreko garaian ateratakoa da, 1931n, hain zuzen ere. Herriko dantzari taldeak historia luzea dauka; eta, dantzariekin batera, baita herriko txistularien taldeak ere. Dantzari taldearen jatorriaren gainean berba egiten denean, bi izen aipatzen dira beti: Nikomedes Lete eta Pedro Soriano.

Txistulari taldearen aitzindaritzat, berriz, Santi Sologastoa, Pedro Igartza eta Pedro Telleria jo izan dira, ondoko argazkian azaltzen direnak.

Paper garrantzitsua bete dute herrian herriko dantzari eta txistulariek, jai eta ospakizun gehienetan parte hartu dute-eta. Eta gaur egun ere halaxe jarraitzen dute.

Hona hemen argazkian azaltzen direnak, ezkerretik eskumara. Zutik: Santi Sologastoa, Pedro Telleria, Santos Urriategi, Faustino Garitano, Pablo Aristi, Paulino Lete, Roman Laskurain, Juan Jose Urriategi, Felix



Lamariano, Augusto Lamariano, Anizeto Gabilondo eta Pedro Igartza.

Belauniko, berriz, Kruz Azkarate, Bitor Eztenaga, Agustin Arin, Antonio San Sebastian, Migel San Sebastián eta Julian Zubillaga.

Argazkia: Antzuolako Udaleko artxiboa

ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

ANTZUOLA

Herriko Plaza,
1915ean

Herriko alde zaharreko erdigunea izanik, Herriko Plaza ez da askorik aldatu. Aldaketa txiki batzuk, baina, izan ditu, eta ondoko argazkian ikusten dira, gainera, aldaketa horiek.

Atzeko aldean, Kalebarrean, Miota etxea ikusten dugu, 1915ean ateratako argazkian. Estilo kolonialeko etxe dotorea. 1972an bota zuten etxe hura, eta etxebizitzak egin zituzten hantxe.



1915 Bi argazkiotan ikus daitekeenez, antzerako itxura dauka Herriko Plazak 1915eko eta gaur egungo argazkietan.



2003 Atzeko aldean estilo kolonialeko Miota etxe ikusten dugu. 1972an bota zuten, eta frontoaren aurreko aldeko etxebizitzak egin zituzten.

SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tf. 943 76 26 10



Zumelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45



Mariaren Lagundia Ikastola

MATRIKULAZIO EPEA :

Otsailaren 3tik otsailaren 14ra bitartean



HAURTZAINDEGIA, HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA, DBH ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA
Espoloia 1 Tfnoa.: 943 76 25 40-41. Faxa: 943 76 33 31
e-mail: marilagikastola@euskalnet.net

Argazkiak eta diseinua URKAN

Hezkuntza eremu guztiak barne sartzen dituen heziketa integral, kristau eta kalitaztekoa

600 2002KO URTARRILAREN 8KO ZOZKETA

euroko 5 erosketa-bono



2.250 zenbakia
Idoia Azurmendi
Azpeitxi jatetxeak emana



8.967 zenbakia
Josefa Heis
C. Garate poltsa dendak emana



23.741 zenbakia
Mikel Larrañaga
Laket jantzi dendak emana

59.381 zenbakia. Ez da irabazlerik agertu
Mujika burdindegia emana

104.617 zenbakia. Ez da irabazlerik agertu
Gaztelu burdindegia emana



Zorionak!



SARRERA DOAN

Astebururako plana zabal-zabalik



*Ikusiko
duzu!*

Eguenetan,
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:
Amagoia Lasagabaster